

“INTERNATIONAL CONNECTING TALENT ITZULERA 2022-2023” MUGIKORTASUN-PROGRAMA:

GAITASUNAK GARATU ETA PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEKO HELBURUAREKIN GAZTE DONOSTIARREI ZUZENDUTAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN-PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostiako Sustapena, SAK (hemendik aurrera, Donostiako Sustapena edo Sustapena), Donostiako Udaleko garapen ekonomikoko sozietateak, besteak beste, **hiriaren garapen ekonomiko eta soziala** bultzatzea du helburu, bereziki, **kohesioaren** eta **jasangarritasunaren** irizpideak oinarri hartuz, eta hiriko eragileen arteko **adostasunaren** eta **lankidetzaren** bidez. Bide horretan, **berrikuntzaren** aldeko apustu irmoa egiten du, hiriaren eredu eraldatzaile gisa.

2011az geroztik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak, estrategia hori urtez urte inplementatzeko tresna bat erabiltzen dute: **Sustapen Ekonomikoko Plana**.

Jadanik finkatuta dagoen tresna bat da, goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker. Hala, tresna horren bidez, aurre egin ahal izan zaie hiriak azken 10 urteetan izan dituen erronka sozial eta ekonomikoei –tokiko mailan nahiz maila globalean–, hiria lehiakorrago bihurtuz eta posizionatuz.

2021 urtea konplikatua izan zen COVID-19aren pandemiaren ondorioz, baina, hala ere, urtea emaitza onekin bukatu ahal izan zen. Horren ondoren, Donostiako Sustapenak ekonomiaren sustapenerako beste tokiko plan bat proposatu zuen 2022rako.

2022rako planak bide berri bati ekitea zuen helburu, eta etorkizunari aurre egiteko **pertsonetan** oinarritutako ekintzak proposatzen ziren. Horretarako, **proiektu berritzaileak** bultzatu eta tokiko ekosistemako **eragile nagusiekin** sarean lan egitea proposatzen zen, proiektu horien, talentuaren garapenaren eta **Donostiako hiriaren** beraren euskarri lanak egiteko.

Testuinguru horretan, 2021eko planaren eragina aztertuz, eta tokiko eragile sozio-ekonomikoekin hiriaren erronkak –tokikoak nahiz globalak– adostu eta nazioarteko egoerak ezartzen dituen erronkak txertatu ondoren, Donostiako Sustapenak 2022ko Sustapen Plana proposatu du, zeinak honako arlo hauetan lan egiteko proposamena egiten baitu:

- **Donostia kohesionatua**, lan-aukera berriak garatuz, eta, horretarako, zailtasun handienak dituzten taldeei arreta berezia jarritz.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasuna handitzen duten enpresa-proiektuak bultzatuz.
- **Donostia zerbitzu hiri** gisa, kalitatezko sare komertzial berritzailearen aldeko apustua eginez.
- **Donostia zientzian eta berrikuntzan** oinarrituriko garapen ekonomikoko eredu gisa.
- **Donostia hiri-eraldaketarako** prozesu berritzaileen laborategi-hiri gisa.

Bost ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak izaera lehiakor eta berritzaileagoa, eta, aldi berean, izaera sozial, ireki eta kohesionatuagoa eman nahi dio hiriari, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko kohesio sozialaren alde egiten duen hiri-eredua indartuz.

Horretarako, eta hiri kohesionatuaren eredu gisa, “**International Connecting Talent ITZULERA 2022-2023**” mugikortasun-programa aurkeztu du. Programa horren bidez, donostiar gazteei nazioarteko mugikortasuna eskaintzen zaie atzerriko erreferentziazko erakundeetan, eta, ondoren, 6 hilabeteko egonaldia tokiko ekosistemako erakundeetan, gazte horien gaitasunak garatu eta lan-munduratzeko laguntzeko.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Hiriko ekosistema berritzailean nazioarteko loturak sortu eta bultzatzea eta donostiar gazteen gaitasunak garatu eta balio erantsia duten aukera profesionalak eskaintzea da programaren helburua.

Horretarako, Donostiako Sustapenak nazioarteko mugikortasunerako “**International Connecting Talent ITZULERA 2022**” programa eskaintzen die gazte donostiarrei. Programaren bidez, **12 hilabeteko** prestakuntza-programa eskaintzen zaie unibertsitate-titulua edota goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten gazte donostiarrei. Hala, gazteek **6 hilabeteko egonaldia** egin ahal izango dute berrikuntza-gaitasunak garatzen laguntzen duten **atzerriko erreferentziazko erakundeetan**, eta, ondoren, **beste 6 hilabetez, Donostiako erakunde batera joan** ahal izango dute, prestakuntza horrekin jarraitzeko.

Atzerrian nahiz itzultzean landuko dituzten proiektuek izaera berritzailea eta estrategikoa izan behar dute hiriarentzat (tokiko ekosistemako berrikuntzarekin, talentuarekin eta garapenarekin loturiko gaiak), eta lotura bat izan beharko dute une oro.

Hortaz, 12 hilabeteko iraupena izango duen programa bi fasetan banatuko da:

- **1. fasea:** 6 hilabetera arteko egonaldia atzerriko nazioarteko erakunde batean. Egonaldi hori laguntza esleitu ondoren hasiko da, eta nazioarteko proiektu baten lanketan oinarritu beharko da.
 - **2. fasea:** 6 hilabetera arteko egonaldia Donostiako erakunde batean, nazioarteko proiektua tokiko mailan aplikatzean oinarritzen den prestakuntza-programa batekin.
- **18.360 euroko** hornidura ekonomikoa, programan zehar ordaindu beharreko gastuak ordaintzeko helburuarekin (hilean 1.530 euro gordinen baliokidea). Hornidura ekonomiko gisa ordainduko diren kopuruei PFEZaren atxikipenak eta une bakoitzean indarrean dauden Gizarte Segurantzako kuotak aplikatuko zaizkie.
 - Donostiako erakunde batean egindako egonaldian (2. fasea), Donostiako Sustapenak ostatu bat eskaini ahal izango dio onuradunari.
 - Connecting Talent komunitaterako sarbidea
 - Bekei eta nazioarteko praktikei buruzko informazio/prestakuntza jardunaldi bat. Donostiako Sustapenak zehaztuko ditu jardunaldi horren edukia eta datak, eta onuradunek jardunaldi horretara joateko obligazioa izango dute.

Donostiako tokiko berrikuntza-ekosistemako eragileekin batera zehaztuko dira proiektuak. Gazteen talentuaren mugikortasuna eta ondoren lan-merkatura sartzea bultzatzeko hitzarmena/lankidetzak duten eragileekin landutako proiektu esanguratsuak beharko dute izan. Eragile horiek Donostian dute lantokia, eta interesa dute nazioartean erreferente diren beste atzerriko erakunde batzuekin lankidetzak-hitzarmenak aurrera eramaten, hartara, prestakuntza-programa bateratua aurrera eraman ahal izateko, atzerriko egonaldian nahiz hirira itzultzean.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak 91.800 EURO bideratuko ditu, guztira, “**International Connecting Talent ITZULERA 2022-2023**” mugikortasun-programara, **12 hilabeteko 5 proiektu** finantzatzeko helburuarekin (bakoitzak 6 hilabeteko egonaldia atzerrian eta beste 6 hilabeteko egonaldia Donostian).

Donostiako Sustapenak eskubidea izango du mugikortasun-programa honetara bideratutako diru-kopurua edo finantzatu beharreko proiektu kopurua aldatzeko.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Eskainitako laguntzen onuradun gisa hartuko da laguntzak helburu duen jarduera egingo duen edo laguntza hori ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona fisikoa, baldin eta oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen baditu.

Oinarri hauen bidez, laguntzak nola eskatu eta baldintzak nola egiaztatu zehazten da. Edonola ere, kasu guztietan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan xedaturikoa bete beharko da (aurrerantzean DLO), zeina berariaz aitortzen baita lege aplikagarri gisa ondorio horietarako.

Beraz, ezingo zaie laguntzarik eman honako baldintza hauetako bat betetzen duten pertsonari:

- Indarrean dauden xedapenen arabera bete beharreko zerga-obligazioak edo Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzen ez dituztenei.
- Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak jasotzeko aukera kenduz zigortuak izan direnei edo horretarako desgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenei, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexu-diskriminazioagatik zigorturikoak barne.
- Donostiako Udalarekin edota Donostiako Sustapenarekin zorrak dituztenei.
- Aurrez emandako laguntzak guztiz edo partzialki itzuli gabe dituztenei, baldin eta ez bada egiaztatzen itzuli beharreko kopuruaren ordainketa egin denik.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartuko duten onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Diplomatura, lizentziatura, gradu edo goi-mailako lanbide-prestakuntzako titulu bat izatea.
- b) 2023ko urtarrilaren 1ean 30 urte beteak ez izatea.
- c) Donostian erroldatuta egotea, gutxienez, 2021eko urtarrilaren 1etik –etenik gabe– edo aurreko a) ataleko ikasketak Donostian egin izana, baldin eta onuraduna EAEko udalerrri batean erroldatuta badago.
- d) Kasu guztietan, ingeles maila altua (C1) izatea (eta helmuga-herrialdeko hizkuntza, beharrezkoa den kasuan eta dagokion proiektuaren arabera). Horretarako, maila horren egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo, bestela, ahozko eta idatzizko proba bat egin beharko da, eskatzailearen ezagutzak zehazteko.
- e) Atzerrian praktikak egiteko 6 hileko edo gehiagoko beste bekarik jaso ez izana.
- f) Bi faseetan egonaldiak egingo diren enpresa edo erakundeak eskatutako profileria egokitzea.
- g) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea galarazten duen zigor administratibo edo penalik ez izatea, edo horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ez izatea.
- h) Programa hasten den unean, langabezian egotea eta Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea. Izena emateko datak bekaren hasiera-data baino lehenagokoa izan behar du. Beka hasi baino lehen, langabetuek ez dute altan egon behar Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.

Donostiako Sustapenak eskubidea du oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko beharrezko jotako informazio oro eskatzeko.

5. ARTIKULUA. KONTUAN IZANDAKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Programa honetan, jarduera eta kontzeptu hauek hartuko dira kontuan:

- a) Informazio/prestakuntza jardunaldi bat onuradun guztientzat. Donostiako Sustapenak zehaztuko du jardunaldi horren edukia, eta praktikak hasi baino lehen egingo da.
- b) Beraz, programak 12 hilabeteko iraupena izango du, eta bi fasetan banatuta egongo da:

- **1. fasea:** 6 hilabetera arteko egonaldia atzerriko nazioarteko erakunde batean. Egonaldi hori laguntza esleitu ondoren hasiko da, eta nazioarteko proiektu baten lanketan oinarritu beharko da.
 - **2. fasea:** 6 hilabetera arteko egonaldia Donostiako erakunde batean, nazioarteko proiektua tokiko mailan aplikatzean oinarritzen den prestakuntza-programa batekin.
- c) **18.360 euroko** hornidura ekonomikoa, programan zehar ordaindu beharreko gastuak ordaintzeko helburuarekin (hilean 1.530 euro gordinen baliokidea). Hornidura ekonomiko gisa ordainduko diren kopuruei PFEZaren atxikipean eta une bakoitzean indarrean dauden Gizarte Segurantzako kuotak aplikatuko zaizkie.
- d) Donostiako erakunde batean egindako egonaldian (2. fasea), Donostiako gazteentzako Talent Egoitzen programaren onuradun izateko aukera izango duzu (ikus Connecting Talent gazteentzako Talent Egoitzen Programa)
- d) **Gaixotasun eta istripuen estaldura** eta hirugarrenen aurreko erantzukizun zibileko gastuak Donostiako Sustapenaren kontura izango dira (Donostiako Sustapenak egingo du aseguru).
- e) Gizarte Segurantzako kotizazioa kasu bakoitzean dagokion kotizazio-araubidearen arabera.
- f) Connecting Talent komunitatera sarbidea

Kasu guztietan, Donostiako Sustapenak ezarritako baldintzak bete beharko ditu onuradunak, hornidura ekonomikoa ordaindu ahal izateko. Donostiako Sustapenak zehaztuko du baldintza horiek betetzen diren ala ez.

6. ARTIKULUA. ALDIBEREKOTASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Laguntza hauek ematea ez da bateragarria helburu eta epe bererako emandako beste laguntza batzuekin, laguntza horiek ematen dituzten administrazio, erakunde publiko, pribatu edo nazionalak –Europar Batasunekoak nahiz nazioarteko erakundeetakoak– edozein izanik, baldin eta Donostiako Sustapenak berariaz hartarako baimenik ematen ez badu. Edonola ere, laguntza horiek bateragarriak dira, indarrean dagoen legediaren arabera, onuradunak izan ditzakeen Gizarte Segurantzako kuoten hobari edo murrizketekin.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzen diren egunaren biharamunetik deialdiaren amaierara arte (**2023ko otsailaren 24a**) aurkeztu beharko dira eskaerak.

Eskaerak telematikoki egin beharko dira Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio eskatu edo kontsulta egin nahi izanez gero, 943 482800 telefonora deitu edo becas_fss@donostia.eus helbidera idatzi beharko da. Mezu elektronikoa idatziz gero, gai hau jarri beharko da: **“International Connecting Talent ITZULERA 2022-2023”** mugikortasun-programa.

Donostiako Sustapenak aukeratutako proiektuak telematikoki argitaratuko dira www.fomentosansebastian.eus webgunearen bidez. Webgune horretan, zenbat proiektu babestu nahi diren zehaztuko da, eta horietako bakoitzaren ezaugarriak eta eskaerak formalizatzeko epeak.

Donostiako Sustapenak helmugak argitaratuko ditu, urtean zehar sortzen diren aukera edo lankidetzen arabera.

Proiektu modalitate bakoitzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Interesatutako proiektuaren eskaera, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez.
- b) Curriculum Vitae ingelesez eta gaztelaniaz.
- c) Eskatutako titulazioa egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, hala badagokio, instantzia eskudunak igorritako homologazioa.
- d) Ingelesaren ezagutzaren ziurtagiria, aurreko atalean adierazitako baldintza egiaztatzen duena. Horretarako, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da, maila hori egiaztatzeko, edo, bestela, ahozko eta idatzizko proba bat egin beharko da, eskatzailearen ezagutzak zehazteko.
- e) Jaiotza-data egiaztatzeko dokumentazioa (NANA, jaiotza-agiria edo datu hori egiaztatzen duen beste edozein dokumentu).
- f) Eskatzailea erroldatuta dagoen EAeko udalerririk igorritako errolda-ziurtagiria.
- g) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena. Dokumentu hori oinarri hauen eranskin gisa gaineratu da, eta webgunean ere eskuragai egongo da, deskargatzeko.
- h) Eskaera aurkezten den proiektuari buruzko motibazio-gutuna (ingelesez).

Eskaera egitean, webgunean agertzen diren proiektuetatik bat bakarrik aukeratu

beharko da. Eskatzaile bat eskatutako proiekturako hautatu ezean, Donostiako Sustapenak antzeko proiektu bat esleitu ahal izango dio eskatzaileari.

Donostiako Sustapenak zuzenean jasoko ditu programan interesa duten pertsonen jaiotza-ziurtagiria edo errolda-datuak eta, halaber, zerga-betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzen duten egiaztagiriak, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Donostiako Zerga Bilketa Bulegoa).

Laguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean udaleko zerga-bilketaren, Foru Ogasunaren edota Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituztenek betebeharrak horiek betetzen dituztela egiaztatzen beharko dute.

Eskatzaileak aurka egin ahal izango dio, berariaz, Donostiako Sustapenak datu horiek begiratzeari, baldin eta aurka egiteko arrazoiak justifikatzen baditu (Datuen Babeserako 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. art.) eta dagozkion ziurtagiriak aurkezten baditu:

Laguntzaren eskatzaileak dagozkion zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Laguntzaren eskatzaileak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen agiria.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentu guztien egiazkotasuna.

Donostiako Sustapenak aukera izango du oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoa den informazioa eskatzeko.

Dokumentazioa aurkezteko epeak bete ezean, eskaera ez onartutzat emango da.

8. ARTIKULUA. ESKAEREN AKATSAK KONPONTZEA. SUBSANACIÓN DE LOS DEFECTOS DE LAS SOLICITUDES.

Donostiako Sustapenak dokumentazio guztia aztertu ondoren ikusiko balu eskaeraren baldintza guztiak ez direla bete edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskaera egingo dio hutsune horiek bete ditzan edo aurkeztu beharreko dokumentuak hamar laneguneko epean aurkez ditzan. Horrekin batera, Donostiako Sustapenak eskatzaileari adieraziko dio, hori egin ezean, eskaera baztertutzat joko dela, beste izapiderik gabe.

Konponketa hori egiteko dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektriko bidezko justifikaziorik, baldin eta Donostiako Sustapenak berariaz baimentzen ez badu.

Donostiako Sustapenak argibideak eskatu ahal izango ditu, baldin eta egokia iruditzen bazaio.

Donostiako Sustapenak emandako ebazpen espresu eta arrazoitu bidez hartu beharko da eskaera onartu edo baztertzeko erabakia.

9. ARTIKULUA. IZAPIDEAK ETA ESLEIPENA

Laguntza izapidetu eta esleitzeko prozesua honela egingo da:

Esleipena norgehiagoka erregimenaren arabera egingo da, eskatzaileek proiektu bakoitzaren profilera zenbateraino egokitzen diren alderatuz eta baloratuz. Balorazio horren bidez, zerrenda bat egingo da. Horretarako, zenbait fasetan banatutako hautaketa-prozesu bat eramango da aurrera. Fase horietako bakoitza gainditzen ez dutenek ezin izango dute pasa hurrengo fasera, eta, beraz, baztertuta geratuko da haien hautagaitza. Alegia, fase bakoitza baztertzaileria izango da. Hauek izango dira prozesuaren faseak:

1.- Baldintzak egiaztatzea: aurkeztutako dokumentazioa aztertuz (Curriculum Vitae, motibazio-gutuna eta titulazioaren eta prestakuntza osagarriaren balorazioa), atzerriko proiektu bateko hautagai izateko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatuko da.

Baldintza horiek bete ezean, eskatzaileak ezingo du parte hartu programan.

2.- Ingeles-proba dagozkion ziurtagirien bidez (erakunde ofizial batek emandako C1 mailako titulua) ingeles maila egiaztatzen ez dutenen kasuan, eta programa honetan parte hartu nahi dutenen ingeles maila egiaztatzeko helburuarekin, derrigorrezko azterketa bat egingo da (ahozko eta idatzizko proba). Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez jakinaraziko da nork gainditu duen proba.

Gainerako hizkuntzen gaineko ezagutza egiaztatzeko, ez da egingo probarik. Hala, hizkuntza horien ezagutza baloratzeko, dagozkion tituluak aurkeztu beharko dira, gainerako dokumentazioarekin batera, eta elkarrizketetan baloratuko dira.

3.- Hautagai bakoitza aurkeztutako profilera zenbateraino egokitzen den baloratzea: Donostiako Sustapenak –edo azpikontratutako erakunde kolaboratzaile batek– elkarrizketa bat edo batzuk egingo ditu, hautagaia proiektua aurrera eramango den atzerriko enpresak edo organismoak eskatutako profilera egokitzen den baloratzeko. Elkarrizketa horretan, eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa aztertuko da.

4.- Helmugako erakundearen eta tutore gisa parte hartzen duen Donostiako erakundearen azken balorazioa: helmugako erakundeak eta dagokion erakunde donostiarrak azken elkarrizketa egin edo curriculum baloratuko dute, eta horiek hartuko

dute eskatzaileen gaineko azken erabakia. Halaber, azken elkarrizketa bat eskatu ahal izango dute hautagaiekin.

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, prozesuaren fase guztiak gainditu dituzten pertsonen zerrenda eta eskatutako proiektu bakoitzean lortutako azken puntuazioa argitaratuko dira Donostia Sustapenaren webgunean. Halaber, proiektu bakoitzari nori esleituko zaion jakinaraziko da.

Erabaki horiek eskatzaileei jakinaraziko zaizkie, eta onuradunen zerrendak argitaratuko dira. Bestalde, programa honen kasuan, 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 2. ataleko 115. artikuluan jasotzen den zerrenda publikoan jasoko dira onuradunak.

Deialdi honekin lotutako jakinarazpenak bitarteko elektronikoaren bidez edo telefonoz egingo dira, eskatzaileak eskaera egitean jakinarazitako helbide elektroniko eta telefonozen bakiaren bitartez.

Laguntzen onuradunei deialdia egingo zaie taldeko informazio-bilera batera joan daitezten. Bilera horretan, hainbat informazio emango da: programaren, erakundearen eta proiektuaren ezaugarriak, egonaldia egingo herrialdea, proiektuaren ezaugarriak eta programarekin lotutako bestelako gaiak.

10. ARTIKULUA. FORMALIZAZIOA, JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Irteeraren aurreko formalizazioa:

Atzerriko egonaldiaren bitartez programari ekin ahal izateko, laguntzaren onuradunak honako dokumentazio hau entregatu beharko du, laguntza emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik 15 egun naturaleko epean (baldin eta, modu arrazoituan, Donostiako Sustapenak, berariaz, beste epe bat baimentzen ez badu):

- Atzerrira joan aurreko egunean, eskatzailea langabezian dagoela eta Lanbide-EEZn (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoela adierazten duen egiaztagiria.
- Donostiako Sustapenaren eta programan parte hartzen duen pertsonaren arteko lankidetzaren hitzarmena.
- Donostiako Sustapenak Gizarte Segurantzaren alta emango dio onuradunari.
- Banketxeko datuak ematea, ordainketa formalizatu ahal izateko.

Onuradunak obligazioa izango du Donostiako Sustapenak deitutako informazio-/prestakuntza-jardunaldira joateko. Agertu ezean, ezingo da laguntza formalizatu.

Atzerriko egonaldia hasteko epemuga **2023ko irailaren 15a** izango da, baldin eta, modu arrazoituan, Donostiako Sustapenak –berariaz– beste data bat baimentzen ez badu.

Justifikazioa eta ordainketa

4 ordainketaren bidez emango da laguntza:

Lehenengo ordainketa (% 25) egiteko, Donostiako Sustapenak egiaztatuko du beka formalizatzeko aurkeztutako dokumentazioa ondo dagoela eta onuraduna informazio-/prestakuntza-bilerara joan dela.

Bigarren ordainketa (% 25) atzerriko 6 hilabeteko egonaldiaren erdia egin ondoren egingo da. Horretarako, aurrez, onuradunak honako bi txosten hauek aurkeztu dituela egiaztatuko du Donostiako Sustapenak:

- Egonaldiaren lehenengo hilabetean, atzerrian harrera egiten duen erakundearekin hitzartutako lan-plana.
- Atzerriko egonaldiaren erdian, atzerrian aurrera eramandako proiektuaren gauzatze-maila zehazten duen segimendu-txostena.
- Donostiako Sustapenak bi txosten horien egokitasun maila aztertuko du, eta egokiak iritzi gero, bigarren ordainketa egingo du segimendu-txostena baliozkotu osteko 30 egunen epean. Donostiako Sustapenaren ustez txosten horietako bat egokia ez bada, onuradunari jakinaraziko dio, zuzenketak egin ditzan, baliozkotu ahal izateko.

Hirugarren ordainketa (% 25) atzerriko egonaldiaren amaieran eta Donostiako egonaldiaren hasieran egingo da. Horretarako, onuradunak atzerriko egonaldiaren azken txostena entregatu duela egiaztatu, eta proiektuaren lehenengo fasearen emaitza eta atzerriko esperientziaren gogobetetze-maila aztertu beharko dira. Halaber, onuradunak programaren bigarren fasea ondo hasi duela eta bigarren fase horretara egokitutako lan-planean ezarritako helburuekin jarraitzen duela egiaztatuko da.

Laugarren ordainketa eta likidazioa (% 25, dagozkion atxikipenak kenduta, Gizarte Segurantzaren bekadunaren kontura eta % 2 PFEZ moduan, zeina Donostiako Sustapenak bekadunaren izenean ordainduko baitu Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Agentzian), 2. faseko egonaldiaren eta praktikaren ondoren, eta onuradunak bigarren fase horretan egindako jardueren azken txostena aurkeztu ondoren. Txostena aurkeztu ondorengo hilabetean, azken txosten hori egokia dela egiaztatuko du Donostiako Sustapenak, eta hala bada, hirugarren eta azken ordainketa egingo du.

Txosten guztiak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostiako Sustapenaren

webgunean eskuragai dagoen aplikazioaren bidez. Ez da onartu mezu elektronikoko bidezko justifikaziorik, baldin eta Donostiako Sustapenak hartarako baimen espresurik ematen ez bada.

11. ARTIKULUA. UKO EGITEA

Programari uko eginez gero, ez dira ordainduko falta diren kopuruak, eta uko egin aurretik jasotako kopururen bat itzultzeko betebeharra ere eragin dezake, baldin eta uko egiteko arrazoia ezinbesteko egoera batek sortutakoa ez bada.

Itzuli beharreko kopurua kalkulatzeko, egonaldiako aurreikusitako epearen eta egonaldi horretarako esleitutako laguntza ekonomikoaren arteko erlazio proportzionala hartuko da kontuan, eta jasotako kopurua handiagoa bada egonaldian egindako egun kopurua baino, laguntza ematen duen erakundeari itzuli beharko zaio neurriz gain jasotakoa.

Beka hasi ondoren uko eginez gero, eskatzaileak ezingo du aurkeztu berriz ere programara, baldin eta uko egiteko arrazoia ezinbesteko egoera batek sortutakoa ez bada.

12. ARTIKULUA. AMAIERA EZ BETETZEAGATIK EDO AMAIERA BEHARTUA

Onuradunak jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, ez-betetze larria egiten bada eta/edo oinarri hauetan jasotako betebeharrak behin eta berriro betetzen ez baditu edo programatutako egonaldia ezinbesteko arrazoiengatik amaitzen bada. Adierazpen moduan baina modu ez-mugatzailean, ez-betetze larri edo errepikatu gisa hartuko da aurkeztutako dokumentazio ofiziala faltsifikatzea, proiektua aurkeztean kopiatzea, plagioa egitea edo hirugarren eskubideak urratzea, etab. Ondorio horietarako, amaiera behartutzat joko dira, diziplina arrazoiengatik direla eta, onuraduna proiektua gauzatzen ari den enpresatik botatzen duten kasuak (berandu iristea, lanera ez joatea, lankide edo arduradunei errespeturik ez izatea, esleitutako lanak ez egitea, lanera alkoholaren edo drogen eraginpean joatea, etab.).

Jasotako kopuruak itzultzeko aurreko paragrafoan adierazten diren arrazoiengatik bat betetzen bada, Donostiako Sustapenak burofax bidez jakinaraziko dio onuradunari, eta hark laurogeita hamar (90) egun natural izango ditu itzulketa hori egiteko.

Halaber, dirua itzultzeko arrazoi horietako bat betetzen bada, onuradunak galdu egingo du ordaindu gabe egon daitezkeen kopuruak jasotzeko eskubidea.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Laguntzaren esleipena onartzea. Hala, esleipena jakinarazten denetik 15 egun naturaleko epean berariaz eta idatziz uko egin ezean, behin-betiko onartzen dela ulertuko da.
- b) Helmugako herrialdean praktikak egiten hasi aurretik Donostiako Sustapenak eskaintako informazio-/prestakuntza-saiora joatea.
- c) Aurrez zehaztu eta adostutako lan-planaren esparruan, onuradunak praktikak egiten dituen enpresan edo organismoan egin beharreko lanak egitea.
- d) Donostiako Sustapenak praktiken nondik norakoei buruz hiru hilean behin eskatutako txostenak egitea eta bidatzea.
- e) Donostiako Sustapenak eskatutako lan-ebaluazioetan parte hartzea.
- f) Uko eginez gero, neurritz gain jasotako kopuruak itzultzea.
- g) “International Connecting Talent ITZULERA” programaren barruan Donostiako Sustapenak deitutako ekitaldi edo jardunaldietan parte hartzea.
- h) Onuradunei esleitutako norakoa herrialde bakoitzak eskatutako bisa edo baimenak lortzearen araberako izango da. Horrekin loturik, eta Covid-19ak eragindako osasun-krisia eta estatu mailan nahiz nazioartean pertsonen mugikortasunak izandako murrizketak kontuan izanda, programan parte hartzen duten pertsona guztiek ardura eta konpromisoa hartu behar dute beren gain helmugako herrialdeak sarrerarako, irteerarako nahiz egonaldiako ezarritako arauak eta legezko baldintzak betetzeko.
- i) Helmugako herrialdera iristean kontsulatuan edo enbaxadan erregistratzea, egonaldian zehar izango den bizilekua zehaztu ahal izateko.
- j) Ostatu hartzeko lekua eskaintzen den kasuetan, osatu hartzeko kontratua sinatu eta eraikineko arauak betetzea.

14. ARTIKULUA. DONOSTIAKO SUSTAPENAREN BETEBEHARRAK

Donostiako Sustapenak honako betebeharrak izango ditu onuradunekiko:

- a) Egondialdiaren aurretik, bekari buruzko informazioa eskaintzea onuradunari.
- b) Berariazko lankidetzak-hitzarmenak formalizatzea atzerrian praktikak aurrera eramango diren enpresa eta organismoekin. Hitzarmen horien bidez, onuradunak praktikak aurrera eramateko bete beharko diren baldintza material eta teknikoak zehaztu beharko dira (praktikak non egingo diren, iraupena, adosturiko lan-plana eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdi).

- c) Aseguru-poliza bat kontratatzea, onuraduna gaixotasun- eta istripu-arriskuen aurrean babesteko eta hirugarrenen aurreko erantzukizun zibileko gastuak estaltzeko.
- d) Laguntzari dagokion kopuru ekonomikoa ordaintzea, oinarri hauen aurreko paragrafoetan adierazitako arauak betez.
- e) Onuradunari Gizarte Segurantzari alta ematea, eta dagokion kotizazioa ordaintzea.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuen babeserako indarrean dagoen araudiaren arabera, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie eskaera egitean, dokumentazioak aurkeztean, laguntzen izapideak egitean edota laguntzak eman ondorengo kudeaketetan emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela. Hala, Donostiako Udalak jardungo du tratamenduaren arduradun gisa, eta Donostiako Sustapenak kudeatuko ditu; beraz, hark jardungo du tratamenduaren eragile gisa. Tratamenduaren helburua eskaera kudeatzea eta laguntzen izapideak egitea izango da.

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 26ko Datuen Babeserako 2016/679 Erregelamendu Orokorren (DBEO) 6.1.e) artikuluan oinarritzen da tratamenduaren zilegitasuna: tratamendua beharrezkoa da interes publikoko helburu bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunak dagozkion botere publikoak bete ahal izateko. Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

Oinarri hauetan eta dagozkion eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatutako informazioak nahitaezko izaera izango du edo, datu okerrak emanez gero, ezinezkoa izango da eskaera kudeatzea.

Tratamendu honek xede dituen datu pertsonalak biltzeko helburua betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira datu horiek, eta, halaber, helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko.

Oinarri hauetan araututako onuradunek emandako datu pertsonalak Donostiako Sustapenaren laguntzak finantzatzen laguntzen duten edo harekin lankidetzan aritzen diren estatu mailako edo estatuz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta beharrezkoa bada eta laguntza kudeatzeko helburu bakarrarekin.

Halaber, jakinarazten da, laguntza ematean, onuradunaren identifikazio-datuak komunikatu edo laga egingo direla, datuok –emandako laguntzaren kopuruarekin batera– Donostiako Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren kasuan, emandako laguntzak 3.000 euroko

kopurua gainditzen duenean edo, laguntzaren kopurua gorabehera, beharrezkoa denean bakarrik argitaratuko dira datuak.

Eraginpeko pertsonak datu pertsonaletan sartzeko, datuok zuzentzeko eta suntsitzeko eskubideak eta datuen babeserako araudian jasotako beste eskubide batzuk erabili ahal izango dituzte, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren aurrean (Ijentea kalea 1, 20003 Donostia).

Eskubide horiek erabiltzean ez bada behar bezalako arreta jasotzen, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua - 01008 Gasteiz. Dena den, lehen instantzian, Donostiako datuen babeserako ordezkariaren aurrean aurkeztu ahal izango dute erreklamazioa: dbo@donostia.eus. dbo@donostia.eus

Ondorio horietarako, jakinarazten da, eskaera aurkeztuz, eskatzaileak baimen espresua ematen duela aurreko paragrafoan adierazitakoarekin lotutako datuen komunikazioak edo lagapenak egiteko.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartu eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez iragarriko dira, eta argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkeztean, oinarriak onartzen dituzte beren osotasunean.

Erantzukizunetik salbuestea

Onuraduna izango da laguntzak xede duen edo laguntzaren ondorioz egiten diren aurretiazko edo ondorengo jardueren ondoren sortutako kalte pertsonal edota materialen erantzule bakarra; beraz, Donostiako Sustapenak ez du izango erantzukizunik kontzeptu horien ondorioz.

Donostia, 2022ko abenduaren 15an,

Marisol Garmendia Beloqui

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enplegu arloko zinegotzi ordezkaria